

Euskal Herriko mojak

La historia de la mujer vasca en las Ordenes y Congregaciones religiosas (contemplativas o activas) presenta características y logros que forman parte de la historia del País. Esos Institutos religiosos han sido durante siglos el contexto en que la mujer ha podido expresarse de modo institucional, con una constancia y amplitud remarcables

Hiru aro ezberdin

Erlijioso-Institutuetan orokorrean eta Euskal Herrian ere mojen historia hiru arotan banatuko nuke nik: 1) Erdi Aroko garaiak, 2) Trentoko Kontzilioaren ondokoa (1563-1792), eta azken bi mendeak, gaur arte. Zein ezaugarri ditu, bada, hiru aroetako bakoitzak?

Euskal Herriko Lehen Erdi Aroan (V-XII. mendeak) eskasak dira moja-monasterioak, eta lehenengoak ere batez ere azken ordukoak izan ziren (Nafarroan), tradizio beneditarretik zetozenak, noski; zinezko monasterio formalak ziren, lurraldeko agintariak sustatutako fundazioak gehienetan.

Berant Erdi Aroan (XIII-XV. mendeak) biziki ugaritu ziren emakumezkoen moja-etxeak, eta gehienak Eskekoen Ordenetakoak izan ziren (agustindar, frantziskotar, domingotarrak...). Hauen sorrerak gizonezkoen Ordenen ekimen bezala ez ezik herritarren eta bereziki emakumeen ekimen gisara ageri zaizkigu: halakoetan, Ordenen egitekoa inizatiba herritarrei arau onartu batzuk eta babes juridiko eliztarra ematea izan ohi zen gehienetan.

Mojen historia honetan, Erdi Aroak XVI. mendean jo zuen bere goia, hainbat euskal herri txiki-txikiako sero-estrategiek bere Komentu, elkar-bizitza eta bizimoduak finkatu eta Ahizpartearentzako

eliz Hierarkiaren onarpena lortu zutenean. Artean, herrietako bizitzari oso lotutako bizimoduak zituzten, ordea, dotrina eman, gaixoak eta zaharrak zaindu eta abarretan zebiltzala.

Trentoko Kontzilioak irekitzen du historia honetan bigarren epea (1563-1792), eta Frantziako Iraultzak (Iparraldea, 1792) eta Konbentzioko Gerrak (Hegoaldea, 1794) ixten dute aro hau. Elizak legez behartutako klausura hertsia eragina da. Salbuespen bakarren bat aparte, "moja itxiak" bakarrik egongo dira Euskal Herrian bi mende eta erdi horretan. Batzutan Monasterio eta Komentu eder bikainak dituzte; bestetan, Komentu apalagoak.

Hirugarren aroak (1792...) bi gertakari handi ekarri zituen: Iparraldean lege zibilek desagertarazi egin zituzten mojak, eta Hegoaldean, fraideak desagertzean, salbatutako Monasterioak Gotzainen menpera pasatu ziren. Baina garai honetan lorpen instituzionalik handiena moja ireki ekileen sortzea eta garapena dira. Moja itxiek jarraitzen dute, noski, baina garai hauetako protagonismoa Kongregazio berriena izango da.

Euskal Herriko protagonistak

XIX-XX. mendeetan neska euskal herritar anitz sartu zen eliz Erakunde horietan, irakaskuntza eta zerbitzu sozialetan parte hartzeko; baina horren



aurreko historia ere luzea eta aberatsa da, alde batetik Erlujioso-Erakundeen presentzia dago eta bestetik, Erakunde horietan bizi izan diren milaka emakume; moja xumeak eta zinezko euskal gidari elizarrak.

Euskal Herrian ezagutzen ditugun lehenengo moja-monasterioak gaurko Euskal Herritik kanpo izan zituen Nafarroako Erreinuak, Errioxako Donemiliagan (c. 635) eta Naxeran (976). Azken honetan ezohizko zerbait ere egin zen, San Benitoren Erregela emakumezkoentzat egokitu, *Libellus* zeritzan hura idaztean.

Emakume beneditarrek gure egunak arte izan dituzte Euskal Herrian bere Monasterioak; azkena sortuak Ahurti-Belokeko mojena (1883) eta Oñatikoa (1903) ditugu, izan ere azken hamarkadako Oion eta Altxuzakoak garai bateko Leire eta Barriakoen segida baitira.

Emakumezkoen Monasterio itxietan agustindar (18), frantziskotar (38) eta karmeldarrak (37) izan ditugu ugarienak; gizaldiz gizaldi sortuz joan dira, batez ere XIII-XVIII. mendeetan, eta horietako anitz bizirik dago oraindik, nahiz eta historia luzeko zenbait itxen ere ari den (Urduñako klaratarrak adibidez: 1296). Ordena ezberdinak ere egon dira Familia erlijioso berean: beneditar soilak, zistertarrak, edo frantziskotarren artean klaratarrak bezala elisabetar eta sorkundetarrak, Oñatin gertatu izan den erara (Bidaurreta / Sta. Ana).

Moja itxien banaketa geografikoa ere aipa daiten hemen: oso gutxi izan dira Iparraldean (Baiona, Angelu), baina Hegoaldeko lau Herrialdeetan hainbat Monasterio egon da, eta emakume frantziskotarren arteko Probintzia banaketa aipa dezakegu herrialdez herrialde: Lapurdin komen-

tu itxi bat (Baiona), Araban 4, Nafarroan 10, Bizkaian 11 eta Gipuzkoan 12.

Askoz zailagoa da moja ireki ekileen berri ematea, hain ugariak eta aldakorak izan baitira XIX-XX. mendeetan. Kongregazio gazte horiek, batzuk hemen bertan jaiotakoak, edo kanpotik etorriak, Euskal Herrian bokazio-harrobi emankorra aurkitu dute, eta kanpoan sortutako Kongregazio batzuk inoiz bereziki Euskal Herrian sendotu dira, batzutan Erakundearen barruan euskal herritarrek gehiago handia izateraino.

Bestalde, emakumezko Kongregazio berrien euskal fundatzaileak ez da falta izan gurean, horrexetarako gaitasun berezia izan bagenu bezala: Andoaingo Ama Kandida (Jesusen Alabak, 1871), Elise de Cestac (Angeluko Zerbitzariak, 1893), Margarita Maturana (Berrizko Mese-detakoak, 1930), etab. Erromak onartutako 17 Kongregazio orokor "euskal herritar" izan dira, eta Diozesietakoak beste hiru. Auskalo zenbat moja eta Etxe izan duten munduan zehar "euskal" Kongregazio horiek!

Baina batik bat azpimarratzekoa da Kongregazio horietan edo bestetan egon den euskal emakumeen kopurua, gure herrian bertan, Penintsulan eta mundu osoan bizi eta lan egin duena. M. J. Aranak eta B. Frau-k eman dizkiguten estatistikak txundigarriak dira: XX. mendearen bukaeran, moja ireki ekileen 530 Etxe zeuden Euskal Herri osoan, eta hauei moja itxien Monasterioak gehitu behar zitzaizkien, gainera.

Laster, ordea, gure historiako aro handi hori ixtera doa, bestelako bideak hartu baitituzte gure herrietako emakumezkoek.

Joseba Intxausti

Galderak eta oharra: 610-273580